

3.2.4. UDAL-AREAK. GARDENTASUN BERRIKUNTZA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA. UDAL-AGIRITEGIA.

DOKUMENTUAK ERABILTZEKO ETA ERREPRODUZITZEKO BAIMENA, ETA TXOSTENAK EGITEA.

Urtean agiriak erabiltzeko eta erreproduzitzeko 122 baimen-espediente izapidetu ziren. Hala-ber, beste Udal Arlo batzuen espedienteak izapidetzeko orduan eskatutako 8 txosten tekniko ere egin ziren, honako hauek hizpide hartuta: bulego kudeatzaileek sortutako paperezko dokumentuak kontserbatu eta/edo deuseztatzea; bideen izendapena; dokumentuak erreproduzitzeko tasak arautzen dituen 8. ordenantza fiskala aldatzea; Iruñeko Udal Agiritegian dauden agiri-serie batzuetan dagoen informazioa egiaztatzea, eta instalazioen garbiketa espezializatu.

AGIRIAK KONTSULTATZEA.

- 2.257 erabiltzailek kontsultatu dituzte agiritegiko funtsak; horietatik 824 emakumeak dira, eta 1.433 gizon.
- Guztira, 45.147 agiri kontsultatu ziren (2016an, 22.913); gehien kontsultatutakoak argazki-funtsak eta -bildumak izan ziren, 28.424 zehazki (2016an, 9.759 argazki), eta ondoren eraikuntza-lizentzien espediente-serieak, 2.760 espediente, aurreko urtean baino 2.939 gutxiago (5.399).
- Bibliografia eta hemerografiako bildumei dagokienez, guztira 4.115 kontsulta izan ziren (2016an, 2.546).
- Iruñeko Udal Agiritegiaren erabiltzaileek gehienbat bertaratzea hobetsi dute kontsultak egiteko.

JARDUEREN ZERRENDA

- 2017ko sanferminetako jatorrizko kartelaren transferentzia.
- 2016ko Osoko Bilkuraren eta Gobernu Batzordeen zein erakunde autonomoen akta-liburuen eta alkatearen ebazpenen transferentzia.
- 1.945 argazkiren ezohiko sarrera; horietatik, 1.944 partikularren 6 dohaintzari esker gehitu dira, eta gainerakoak, erosita.
- Agirien etengabeko irteera: Stocketako sanferminetako kartelak dohaintzan ematea Asiako merkatuetan Iruñearen sustapena egiteko.
- Erdi Aroko agirien bildumaren (1129-1512) berrantolaketa eta azalpen laburra.

- J.J. Arazuriren argazki-bildumaren antolaketa, artxibatzea, behin-behineko instalazioa eta azalpen laburra; 19.961 irudiz osatuta dago (jarraipena).
- Pablo Sarasateren liburutegi historikoaren antolaketa eta katalogazioa.
- Honako hauetako 4.975 argazkiren erregistroa eta azalpen laburra: Udal Bilduma, Udal Informazio Aldizkaria, Zubieta eta Reteguiaren argazki-funtsa («El Pensamiento Navarro» egunkarian argitaratutako erreportajeak).
- Agirien kontserbazio eta zaharberritzeari dagokionez:
 - Sakramentu Txit Santuaren kofradiaren (hiriko zaharrena) agiri-funtseko lehen kontu-liburua tratatzea, eta hori garbitu, egonkortzea eta haren euskarriak leheneratzea, beharrezkoa izan zenean, baita kontserbazio-material egokian ezartzea ere.
 - Mapak, Planoak eta Marrazkiak bildumako (XVIII. mendea) 30 agiri-unitate zaharberritzea; hau da, haiek garbitu eta egonkortzea, haien euskarriak leheneratzea eta kontserbazio-material egokietan ezartzea.
 - Udalaren ondare historiko-artistikoko lau olio-pintura (XVII.-XIX. mendeak) zaharberritzea; hau da, haiek garbitzea, pigmentuak egonkortzea eta bastidoreak zein markoak sendotzea.
- Digitalizazioa:
 - Udal Hemerografia Bildumako egunkarietako 99.723 orri.
 - Udalaren Osoko Bilkuraren akten 2015-2016 bitarteko serie-frakzioa; hala bada, guztira, 1.554 orri tiff formatu bihurtu ziren, formatu horretan oinarrituta, pdf multi-orri fitxategiak sortzeko, betiere egin dituen bulego sortzaileak diseinatutako egiturari eutsita.
 - Desagertutako Udal Informazio Bulegoak sortutako ikus-entzunezko funtsaren digitalizazioa; 7 formatutako (VHS, VHS C, kasetea, karrete handia, karrete txikia, Betamax eta U-Matic) ikus-entzunezko 239 biltegiatze-unitatez osatuta dago.
 - Dionisio Casañalek sortutako Iruñeko kartografia historikoari (1882) buruzko 91 agiri-unitateren digitalizazioa.
- 3.568 negatiboren garbiketa-lanak, birkokapena (gelatina-emultsioa nitrato, diazetato eta zelulosa triazetatozko euskarrien gainean); Zubieta eta Reteguiaren argazki-funtseko 1940-1983 arteko entzierroko erreportajeei dagozkie. Bihurketa digitala, TIF eta JPG formatuak sortzea, kontsultarako. Haien morfologiak, egileak, merkataritza-markak eta atzitze-eki-poak datu-baseetan deskribatzea.

- Dokumentuak aldi baterako mailegatzea eta itzultzea beste erakunde batzuek sortutako erakusketetarako:
 - Arazuri bildumako 4 argazki (Paper gaineko albuminak, 1864-1872koak) Karlismoaren Museoari, «Kamera ilunean zehar: karlismoarekin lotutako argazkilaritza teknikak». Lizarako Karlismoaren Museoan egin zen, 2017ko maiatzaren 10etik azaroaren 10era.
 - Noingo akueduktua eraikitzeko proiektua (1782), Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari (Madrilgo Erkidegoa), Ventura Rodríguez arkitekto madrildarrari buruzko erakusketarako; San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademian (Aldi baterako erakusketen aretoa), haren jaiotzatik hiru mende betetzeagatik (2017ko abendua – 2018ko martxoa).
- Batasunaren Pribilegioaren aldarrikapena ospatzeko ekitaldietan parte hartzea, udaletxean XV. mendeko jatorrizko agiriaren eta agiri horren zenbait kopia, argitalpen eta azterketaren erakusketa eginez.
- Udal Agiritegiak Agiri Elektronikoaren Gida Plana garatzen eta Agiriak Kudeatzeko Politika zehazten parte hartzea.
- Ganbera korazatua egokitu eta hornitzea, objektu artistikoak gordetzeko.
- Udaletxeko ezkaratzean eta eskailera nagusian eginiko erakusketa-proiektuan parte hartzea.
- Agiritegiaren proiektzio publikoari dagokionez, honako ekintza hauek:
 - Zenbait bisita gidaturen kudeaketa.
 - «Diario de Navarra» egunkariak antolatutako sanferminetako argazki-lehiaketan parte hartzea, epaimahaiko kide tekniko gisa.
 - Iruñeko Udaleko Kultura Alorrak antolatutako «Iruña Fokatu» argazki-lehiaketan parte hartzea, epaimahaiko kide tekniko gisa.
 - NUKFek antolatutako artxiboei buruzko ikastaroa laguntzea «Agiri Elektronikoei buruzko Plan Zuzentzailea: e-dokumentuak kudeatzeko eredua» erakusketaren bidez. (Azaroa)
 - Nafarroako Ondare eta Arte Katedrak San Fermin kaperaren sagarapenaren III. mendeurrena ospatzeko antolatutako konferentzia-zikloan parte hartzea: «San Ferminen gurtza Iruñeko Udal Agiritegiko funts eta bilduma grafikoen bitartez». (Iraila)
 - Berdintasun Alorrak zuzendutako «Emakumeak hirian izendatzea» proiektuan parte hartzea.

- Langileen prestakuntza:

- Teknikariak gure agiritegien KULTUR ZABALPENERAKO jardunaldietara joatea. Bi jardunaldi izan ziren, azaroaren 3 eta 17an, Nafarroako Gobernuaren Artxiboen Zerbitzuak antolatuta, Nafarroako Artxibo Orokorrean.

- Teknikariak «Artxiboetan deskribapena normalizatzea: Azken proiektuak eta agente arduradunak» izeneko mintegira joatea. Nafarroako Gobernuako Artxiboen Zerbitzuak azaroaren 27an antolatuta, Nafarroako Artxibo Orokorrean.

- Teknikariak «Nafarroako administrazio publikoen administrazio elektronikoaren aldaketak 39/2015 eta 40/2015 legeen urtebeteren buruan» izeneko mintegira joatea (azaroaren 23a)